

ERANSKINA

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

2016. URTERAKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN

ESTRATEGIKOA

AURKIBIDEA

1. SARRERA.
2. DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN (DPE) ESPARRU INSTITUZIONALA ETA DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO JARDUERAREN OINARRI DIREN PRINTZIBIOEN INGURUAN PLANTEATZEN DIREN HELBURU NAGUSIAK.
 - 2.1.- Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza.
 - 2.2.- Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza.
 - 2.3.- Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza.
 - 2.4.- Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza.
 - 2.5.- Etxebizitza Sailburuordetza (Etxebizitza Zuzendaritza eta Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza).
3. DIRU-LAGUNTZA ILDOEN BANAKAKO FITXAK.

1. SARRERA

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (aurrerantzean, DLO) 8. artikulua oinarriko legediaren izaerarekin xedatutakoaren arabera, administrazio publikoek diru-laguntzei buruzko plan estrategiko bat egin behar dute nahitaez. Bertan zehaztuko dituzte berau aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, baita horiek lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta haiek finantzatzeko iturriak ere; betiere, aurrekontu-egonkortasunaren helburuak beteko direla bermatuta.

Plan hau Sailaren politika antolatzeko tresna da, haren helburua erabilera publikoko edo gizarte-intereseko jarduera bat sustatzea, edo xede publiko bat lortzeko bultzada ematea baita, horretarako diru-laguntzak emanda.

Plana 2016an egongo da indarrean:

Plan hau lantzeko, lortu nahi diren interes publikoak kontuan hartu eta planaren indarraldian horretarako erabilgarri dauden baliabideekin alderatu dira; hala, eraginkortasun- eta efizientzia-mailak areagotzea eta gure jarduera-eremuko gardentasuna indartzea bermatuko da.

Plana programatiko delako nabarmendu behar da, eta beraz, edukiak ez duela ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen. Planaren eraginkortasuna abiarazten diren diru-laguntza ildoen baldintzapekoa izango da eta hori, beste alderdi batzuen artean, urte bakoitzean dagoen aurrekontuaren arabera izango da.

Planaren jarraipenari eta ebaluazioari dagokionez –Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egin behar du–, honako hau aipatu behar da: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 49.8 artikuluan jasotzen denez, dagokion ekitaldi ekonomikoa amaitzean, EAEko administrazio orokorreko sailek eta haien erakunde autonomiadunek gauzatu diren diru-laguntza programak ebaluatu behar dituztela, emaitzak zenbatekoak izan diren, gizartean zenbateko eragina izan duten eta zenbateraino diren erabilgarriak ikusteko eta aipatutako programak mantendu edo bertan behera utzi behar diren erabakitzeko. Kontrol ekonomikoaren arloko eskumenak dituen sailari ebaluaketa horren berri emango zaio. Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarreko Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari aipatutako ebaluazioaren edukia helaraziko dio.

2. PLANAREN ESPARRU INSTITUZIONALA ETA DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO JARDUERAREN OINARRI DIREN PRINTZIBIOEN INGURUAN PLANTEATZEN DIREN HELBURU NAGUSIAK.

Planak 2016an diru-laguntzak emateko aurreikuspena duten Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko organo guztien diru-laguntzak biltzen ditu: Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza; Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza; Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza; Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza; Etxebizitza Zuzendaritza eta Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.

Jarraian, organo bakoitzaren diru-laguntza jardueraren helburuak eta oinarri diren printzipioak adieraziko ditugu:

2.1.- Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza

2.1.1.- Enpresaburuen elkarteentzako eta erakunde sindikalentzako diru-laguntzak, beren jardura eremuetako berezko gaiei dagokienez, giza-baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak egiteko.

191/2003 Dekretuak, uztailaren 29koak, enpresaburuen elkarteei eta erakunde sindikalei,

beren jardura eremuetako berezko gaiei dagokienez, giza-baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak egiteko diru-laguntzen ematea arautu zuen. Hala, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, 1996. urtean, 244/1996 Dekretuarekin, urriaren 29koarekin, enpresaburuen elkarteen eta erakunde sindikalen berezko xedeen barruan prestakuntza-jarduerak egiteko martxan jarritako babes-neurriari jarraipena eman zien.

Horrela, enpresari-elkarteen eta erakunde sindikalen barne-prestakuntzarako programak, beren jardura-eremuetako berezko gaiei lotutakoak, indartzera, integratzera eta haien koherentzia sustatzera zuzendutako finantzaketa publikoko sistema bat ezarri zen, beraien koadroak eta langileak kualifikatzeko tresna egokiak izan zitezkeen, eta horrela, haiek egoera soziolaborala hobetzen laguntzea ere sustatu zen.

2.1.2.- Hauteskunde sindikalen batzordea, lurralde-batzordeak eta ikuskaritza osatzen dituzten erakunde sindikalei, 237/2000 Dekretuan jasotakoei, zuzendutako diru-laguntzak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sindikatu Hauteskundeen Bulego Publikoa, Batzordea eta Ikuskaritza sortu zituen azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuko bigarren xedapen gehigarrian, dekretu horren bidez sortutako organoak osatzen dituzten erakunde sindikalei Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren aurrekontu-dotazioen pentzutan ematekoak ziren diru-laguntzak emateko prozedura ezarri zuen.

Sindikatuak Hauteskunde Sindikaletako Batzordean eta lurralde-batzordeetan egiten duten lana aipatutako batzordeak osatzen dituzten erakunde sindikaletako ordezkariak hauteskunde-prozesuetako jarraipen- eta kontrol-bileretara joatea da. Bilera horien funtsezko helburua hauteskunde-prozesua eta hauteskunde sindikaletako aktak aztertzea da, baita horiekin lotuta gertatzen den edozein gorabehera konpontzea ere.

Horretaz gain, erreferentziazko dekretuko aipatutako bigarren xedapen gehigarrian, diru-laguntzaren zenbatekoa erakunde sindikalen artean zati berdinetan banatzeko aukera jasotzen da edo Euskal Autonomia Erkidegoan, enpresetako eta administrazio publikoen zerbitzupeko langileen ordezkari-organoei, hauteskundeetan,

erakunde sindikal bakoitzak eskuratutako ordezkatze-mailaren arabera banatzekoa, diru-laguntzak emateko aginduan xedatzen denari jarraiki eta sindikatuekin aldez aurreko akordiorik dagoen ala ez kontuan hartuz.

2.1.3.- Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza duten erakunde sindikalentzako diru-laguntzak.

Urtero, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorreari buruzko legeetan jasotakoaren arabera, erakunde sindikalei diru-laguntzak eman izan dizkie, betiere beren berezko helburuen barneko jarduerak egitearen baldintzapean.

Erakunde sindikalen helburua langileen interes ekonomikoak eta sozialak defendatzen eta sustatzen laguntzea da. Defentsa hori sindikatu guztiek hartu behar dute beren gain, bereizketarik gabe.

Askatasun sindikalak oztoporik gabeko jarduera-eremu libre bat bermatzen die sindikatuari, administrazioaren esku-hartzerik gabekoa, baina ez ditu debekatzen, hala ere, sindikatuaren autonomia mugatu gabe sindikalismoa sustatzeko edo bere indarra indartzeko asmoz egiten diren ekintza publikoak; aitzitik, Europar Batasuneko estatuetakoa administrazio guztiek diru-laguntzak ematen dizkiete sindikatuari, lan-harremanen esparruko ezinbesteko gizarte-eragile direla-eta, beren lana egiteko gutxienezko bitartekoak izatea bermatzeko.

Beste aldetik, Euskal Herriko Unibertsitateari diru-laguntza emango dugu, titulu propioa ikasketak sor ditzan, ikuskaritza eta aholkularitza soziolaboraleko adituak lortzeko.

Helburu estrategikoa: lanari loturiko legeria betetzen dela zaintzea eta lan-harremanen esparru propioa sustatzea, lan-baldintzak eta produktibitatea hobetzeko.

2.2. Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza

Gizarte-ekonomia indartzeko eta sustatzeko baliabideak kudeatzen dituen unitatea den neurrian, 2016ko ekitaldirako honako lehentasunezko helburu hauek ditu: Sustatzea eta aholkularitza ematea, gizarte-ekonomiako enpresak, hau da, lan-kooperatibak eta -sozietateak, sortu eta mantentzeko eta eskualdeetan gizarte-ekonomiako enpresa-proiektu berriak garatzeko, eta hala, tokiko garapena babesteko; gizarte-kapitala, eta hedaduraz, gizarte-ekonomiako enpresen sozietate-oinarria, zabaldu eta indartzeko, eta hala, kolektibo jakin batzuen nahitaezko ekarpena bultzatzeko; gizarte-ekonomiako enpresetara egokitutako kudeaketa-tresna aurreratuen ezarpena sustatzeko; gizarte-ekonomiako prestakuntza-jarduera zehatzak egitea, argitalpenetan gizarte-ekonomiaren zabalkundea egitea, dibulgazio-jarduerak egitea eta enpresen gizarte-erantzukizuna sustatzea bultzatzeko; gizarte-ekonomiaren eta ekonomia solidarioaren elkarte-egiturak sendotzeko; kooperatiben arteko lankidetzak sustatzeko.

Hori guztia Jaurlaritzak euskal gizarte-ekonomia babestu eta zabaltzeko hartutako konpromisoa gauzatzeko egingo da.

2.3. Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak herritarrek gizarte-zerbitzuetarako duten eskubidea bermatzen du, baita Legeak berak 22. artikuluan biltzen duen katalogoan identifikaturiko zenbait prestazio eta zerbitzuren hornidura publikoa izatea ere. Hala ere, ezin da pentsatu aipatutako prestazioek eta zerbitzuek esku-hartze sozialeko aukera eta alternatiba guztiak agortuko dituztenik. Legeak berak, 73. artikuluan, **irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimena publikoki babestea** aurreikusten du, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan barne hartu gabeko prestazio eta zerbitzuak garatzeko eta gizarte-zerbitzuen esparruan beste jarduera batzuk egiteko.

Beste alde batetik, aipatutako artikulua emandako eskumenei jarraiki, diru-laguntza plan honetan jasotako **diru-laguntza izendunen** hartzaile diren hirugarren sektoreko erakundeek sustatutako jarduerak bultzatzea interes orokorrekotzat jotzen da, erakunde horiek diruz laguntzekoak diren programak garatzeko subjektu estrategikotzat jotzen direlako.

Gainera, esku-hartze sozialeko politiken inguruan, Eusko Jaurlaritzak **bestelako erakunde publikoei** zuzendutako diru-laguntzen inguruko jarduna oso handia izan da, batez ere, udal-esparruan, etorkinen gizarteratzearen eta integrazioaren zeharkako ikuspegiak bereziki kontuan hartuko dituzten jarduerak esku-hartze soziala gauzatzeko langileak kontratatuzko laguntzen kasuan. Diru-laguntzen jardun hori toki-erakundeen bitartez integrazio komunitarioko politikak bultzatu beharrak justifikatzen du. Lanbide Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta oinarrizko gizarte-zerbitzuekin koordinatuta eta modu osagarrian lan eginez kudeatu behar du, gizartean baztertuta edo bazterkeria arriskuan dauden pertsonen kasuan modu integralean jarduteko. Horrela, testuinguru berri horrek Gizarte Zerbitzuen Legeak proposatutako ikuspegi komunitarioan eta legeak berak planteatzen dituen printzipioetan aurrera egiten lagundu behar du.

Enplegu-politika aktiboen eskumena edukitzeak eta Lanbide laneratze aktiboaren aldeko tresna izateak diru-sarrerak bermatzeko errentaren inguruko politikak enplegu-sistemaren bidez kudeatzea ekarri du, gizarte-zerbitzuen sistemaren bidez kudeatu ordez. **Gizarte-larrialdiko laguntza** deituriko prestazio ekonomikoak gizarte-zerbitzuen bitartez kudeatuko dira aurrerantzean ere. Transferentzia hori gizarte-zerbitzuen sistemarentzat aukera ezin hobea da; gizarte-zerbitzu hurbilek beren ahaleginak pertsona guztien autonomia funtzionala eta harreman-integrazioa edo integrazio komunitarioa babesteko eta sustatzeko berariazko funtziora bideratu ahal izateko aukera ezin hobea.

Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimentzako Telefono bidezko Arreta Zerbitzua (SATEVI), ordainketa bakarrean egiteko diru-laguntzak eta emakumeenganako indarkeria jasan duten emakume biktimak artatzen dituzten profesionalen aholkularitzaren kudeaketa integratua Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailera gehitu

ondoren, bat etorri Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak bigarrenez aldatzen eta sail horien zereginak eta jarduera-esparruak zehazten dituen Lehendakariaren abenduaren 2ko 347/2013 Dekretuarekin, **gizarte-zerbitzuek kudeatzen dute genero-indarkeriaren emakume biktimentzako diru-laguntza, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoa.**

2.4. Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza

Familia-politikak aintzatetsi behar du familia dela eragile nagusia, batetik, belaunaldi barruko eta belaunaldi arteko elkartasunaren sustapenean, eta, bestetik, balioak transmititzeko eta familia-kideen garapen pertsonala bermatzeko eginkizunean; horretaz aparte, familiaren barruan gertatu diren eraldaketak aitortu behar ditu.

Beste alde batetik, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak bere gain hartzen ditu boluntarioei buruzko 17/1998 Legeak, ekainaren 25ekoak, eta bere garapen-araudiak Eusko Jaurlaritzari esleitutako zereginak, bereziki, boluntariotza-erakundeen errolda orokorra mantentzearekin eta eguneratzearekin eta 2013-2016 aldirako Boluntariotzaren Euskal Estrategian bildutako ekintzak betetzearekin lotutakoak.

Horrez gain, Zuzendaritzaren lanak honako helburu hauek dauzka:

- Euskal Autonomia Erkidegoan etorkinak integrazteko eta normalizatzeko ekintzak eta politikak bultzatzea.
- Askatasun afektibo-sexuala errazteko baldintzak sustatzea.
- Tratu-berdintasunaren alde eta jatorriak, kulturak, orientazio afektibo-sexualak eta genero-nortasunak eragindako diskriminazioaren kontra lan egitea.

Aniztasuna integratu, normalizatu eta kudeatzeko politiken esparruari dagokionez,

1. Immigrazioarako Euskal Estrategia, honako ardatz hauen inguruan antolatua: Herritartasunaren eta immigrazioaren inguruko euskal politikaren egituraketa eta antolaketa, erakundeen barrukoa eta erakundeen artekoa; lana, prestakuntza eta eskola-arrakasta eskuratu ahal izatea, integrazioarako, erabateko herritartasuna lortzeko eta bitartekoak mugiarazteko bide gisa; zerbitzu eta programa publikoetan aniztasuna barne hartzea eta kudeatzea; parte-hartzea, kultura-aniztasuna eta elkarbizitza; bazterkeriaren, arrazismoaren eta xenofobiaren kontrako borroka.

Etorkinei Arreta emateko Euskal Sistemak etorkinak zein herritarrak, oro har, hartzeko, sentsibilizatzeko, aholkuak emateko eta informatzeko sistema erreferente eta integrala izatea du helburu.

Zerbitzu hori emateko, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak bitartekoak, tresnak eta gailuak izango ditu eskura: Biltzen, Ikuspegi, harrera-sistema, atzerritarrentzako aholkularitza juridikoko zerbitzua...

Oso garrantzitsua da ere udal-administrazioari immigranteen integrazioa errazteko eta sustatzeko programak ezartzeko ematen zaion laguntza, batez ere kanpotik etorriak direla-eta okerren daudenentzat baldin badira, gizarteratzeko eta eskubideak berdintasunean baliatzeko bidean. Hori dela eta, tokiko erakundeekiko lankidetzalari eutsiko zaio.

2. Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legean, transexualitatearen arloko politika publiko baten oinarriak zehazten dira.

Aipatutako neurrietako batzuk abiarazi ostean, eta LGTB taldeekin batera diseinatutako jarduketa-planarekin jarraituz, sailen arteko koordinaziorako dinamika eta lan-ildoak ezarri dira.

3. Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia. Hona hemen bere ardatzak:

1. Ijitoen bizi-kalitatea hobetzea.
2. Ijitoen partaidetza soziala.
3. Bizikidetzeta eta ijito-kulturari buruzko jakintza hobetzea.

Ijito herriaren kulturari eta historiari buruzko jakintza eta ijito-nortasunaren onarpena areagotzen laguntzea, kulturen arteko bizikidetzeta hobetzeko gakoak diren aldetik.

Aurreko urteetan bezala, Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Euskal Estrategian jasota dauden neurriak eta jarduerak gauzatuko dira.

2.5. Etxebizitza Sailburuordetza. (Etxebizitza Zuzendaritza eta Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza).

Etxebizitza Sailburuordetzaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa (DPE) etxebizitza-politikaren plangintzako beste tresna bat da, eta indarrean dagoen 2013-2016 aldirako Etxebizitza Bideratzeko Planean jasotako etxebizitza-politikaren plangintza estrategikoarekiko koherentea da, baita aipatutako eperako erabilgarri dauden aurrekontu-bitartekoekiko ere. Hala, programatutako jardueren gardentasuna indartu da. 2013-2016 aldirako Etxebizitza Bideratzeko Planak 460 milioi euroko aurrekontu-hornidura dauka indarrean emango dituen lau urteetarako eta aurreko planeko apustu nagusiei eusten die: alokairu-erregimena eta hiri-birgaitzea, -berroneratzea eta -berritzea bultzatuko ditu. Birgaitzeari dagokionez, EBPK eta Etxebizitzak Birgaitzeko 2013-2016 aldirako Renove Planak jarduera-esparrua definitzen dute eta 2013-2016 aldian Enplegua Sustatzeko Programan finkatutako sei ildo estrategikoetako bat da.

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa egiteko, 2013-2016 aldirako EBPan zehaztutakoa eta Etxebizitzaren 3/2015 Legean jasotako betebeharrak bete diren aztertu da, baita aurrera eramanez diren herritarren parte-hartze proiektuetan eragileek eta herritarrek agerian utzi dituzten beharrak eta egin dituzten ekarpenak ere.

DPEa honako printzipio hauetan oinarritzen da: zorroztasun ekonomiko eta aurrekontu-kontrol handiena, erabilgarri dauden baliabideen erabilera efizientea, emandako zerbitzuen kalitatea, kudeaketaren gardentasuna eta etxebizitzaren arloko politika publikoak formulatzeari begira herritarren parte-hartzea eta elkarlana ahalbidetzea.

Etxebizitzaren arloko 4312 aurrekontu-programaren bidez (programa horretan, urtero, indarrean dagoen plangintza estrategikotik eratorritako helburuak, ekintzak eta adierazleak jasotzen dira eta planifikatutako helburuak betetzeko beharrezkotzat jotzen diren aurrekontu-bitartekoen hornidurak barne hartzen dira) garatzen diren 2015-2016rako diru-laguntza ildoek, funtsean, alokairua eta hiri-birgaitzea, -berroneratzea

eta -berritzea sustatzeko ardatz estrategikoak garatzen dituzte, gaur egun etxebizitza-politikaren ardatz estrategiko nagusiak baitira.

2016rako DPEak jasotzen dituen diru-laguntzen zati handi bat aurreko ekitaldietatik dator; izan ere, zerbitzu publikoen prestazioa hobetzea eta herritarren bizi-kalitatea handitzea eragiten duten diru-laguntza ildo arrakastatsuei eustea egokitzat jo da.

3- DIRU-LAGUNTZA ILDOEN BANAKAKO FITXAK.

Fitxak zuzendaritzen arabera ordenatuta daude, eta zuzendaritza bakoitzean, **eranskinetan** banatuta. Diru-laguntza ildo bakoitzeko hiru eranskin barne hartu dira: **2. eranskina**, **3. eranskina** eta **4. eranskina**.

2. eranskinean, diru-laguntza ildo bakoitzaren programa eta lortu nahi diren helburuak jasotzen dira, baita horretarako zer ekintza egingo diren ere. Hori guztia, adierazleak eta dagozkien magnitudeak finkatuta.

3. eranskinean, diru-laguntza ildo bakoitzak EAEren Aurrekontu Orokorren kargura izango duen ekarpen ekonomikoa jasotzen da. Era berean, diru-laguntza ildo hori bultzatzeko erabiliko den finantziario publiko guztia kontuan hartuta, ekarpen horren ehunekoa zein den zehazten da.

4. eranskinean, diru-laguntza ildo bakoitza zein sektoreri dagokion (edo dagokien) adierazten da (gizarte-ekonomia, enpresa txikiak, toki-erakundeak...), baita diru-laguntzak emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua ere (Dekretua, agindua...).

Beraz, zuzendaritza bakoitzaren diru-laguntza jardunari dagokionez, lehenik eta behin, zuzendaritzaren diru-laguntza ildo guztien 2. eranskina jaso da, gero 3. eranskina, eta azkenik, 4. eranskina.

3.1.- Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza

3.1.1.- Enpresaburuen elkarteentzako eta erakunde sindikalentzako diru-laguntza, beren jardura eremuetako berezko gaiei dagokienez, giza-baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak egiteko.

3.1.2.- Hauteskunde sindikalen batzordea, lurralde-batzordeak eta ikuskaritza osatzen dituzten erakunde sindikalei, 237/2000 Dekretuan jasotakoei, zuzendutako diru-laguntza.

3.1.3.- Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak duten erakunde sindikalentzako diru-laguntzak.

3.1.4.- Euskal Herriko Unibertsitateari diru-laguntza ematea, titulu propioko ikasketak sor ditzan, ikuskaritza eta aholkularitza soziolaboraleko adituak lortzeko

3.2.- Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza

3.2.1.- Gizarte-ekonomian ekitea

3.2.2.- Gizarte-ekonomiaren arloko laguntza teknikoa

3.2.3.- Gizarte-ekonomiako enpresen eta erakundeen elkarte-egiturak sendotzea.

3.2.4.- Gizarte-ekonomiaren arloko prestakuntza.

3.3.- Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza

3.3.1.- Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak, 271/2012 Dekretua, abenduaren 4koa, garatzeko.

3.3.2.- Erakunde publikoek esku-hartze sozialaren esparruan teknikariak eta/edo administrariak kontratatuzeko eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak.

3.3.3.- Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legeko gizarte-larrialdiko laguntzak

3.3.4.- Sartu elkarteari diru-laguntza izenduna, honako programa honetarako: Zerbitzu integrala, gizarte-heziketako tailerren sarea eta garapen komunitarioa eta parte-hartzea.

3.3.5.- Matia Gerontologia Institutua fundazioari (INGEMA) diru-laguntza izenduna, honako programa honetarako: Adinekoekin lotutako I+Gko ekimenak, etxean arreta emateko eredu integrala eta prestakuntza-jarduerak bultzatzea.

3.3.6.- Eguía-Careaga Fundazioari diru-laguntza izenduna, honako programa honetarako: Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak (SIIS) aurrera eramaten dituen gizarte-zerbitzuen arloan aurreikusitako jarduerak.

3.3.7.- Bizitza Berria elkarteari diru-laguntza izenduna, honako programa honetarako: Gaia programa.

3.3.8.- Euskal Gorrak-Pertsona Gorren Elkarteen Euskal Federazioari diru-laguntza izenduna, honako programa honetarako: Zeinuhizkuntzako interpreteen zerbitzua.

3.3.9.- Claret Sozial Fondoa fundazioari diru-laguntza izenduna, honako programa honetarako: Gizarteretxe gizarteratze integralerako zentroaren proiektua.

3.3.10.- FEVAPAS-Euskal Herriko Gorren Lagun eta Gurasoen Elkarteen Federakundeari diru-laguntza izenduna, honako programa honetarako: Entzumen-urritasuna daukaten familia eta pertsonentzako babes- eta laguntza-sarea.

3.3.11.- FEDEAFES-Buru Gaixotasuna duten Pertsona eta Senide Elkarteen Euskadiko Federazioari diru-laguntza izenduna, honako programa honetarako: Buru-gaixotasuna duten pertsonentzako eta haien senideentzako aholkularitza juridikoko zerbitzua.

3.3.12.- FEDEAFES-Buru Gaixotasuna duten Pertsona eta Senide Elkarteen Euskadiko Federazioari diru-laguntza izenduna, honako programa honetarako: Ateak Zabaldu.

3.3.13.- FEDER-Gaixotasun Arraroen Espainiako Federazioari diru-laguntza izenduna, honako programa honetarako: Esku-hartze sozialeko programak garatzea.

3.3.14.- Arantzazuko Santutegiari diru-laguntza izenduna, honako programa honetarako: Elkarrekin bila.

3.3.15.- Clara Campoamor elkarteari diru-laguntza

3.3.16.- Barakaldoko San Vicente de Paúl Konferentziari diru-laguntza

3.3.17.- Arabako Elikagai Bankua

3.3.18.- Arabako Itxaropen Telefonoa Elkarte

3.3.19.- Euskal Autonomia Erkidegoko Gurutze Gorriari diru-laguntza izenduna, pobrezia energetikoari aurre egiteko programarako.

3.3.20.- Genero-indarkeriaren emakume biktimentzako diru-laguntza, Genero indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoa.

3.4. Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza

3.4.1.a) Seme-alabak dituzten familiei diru-laguntzak, uztailaren 16ko 176/2002 Dekretuaren, maiatzaren 30eko 109/2006 Dekretuaren, abenduaren 19ko 255/2006 Dekretuaren eta martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuaren arabera.

3.4.1.b) Familia eta lan bizitza uztartzeko diru-laguntzak, ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren arabera (martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuaren bidez aldatu zen).

3.4.2.- Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak, 271/2012 Dekretua, abenduaren 4koa, garatzeko.

3.4.3.- HIRUKIDE-EUSKADIKO KIDE UGARIKO FAMILIEN ELKARTEEN FEDERAZIOAK familien esparruko jarduerak bultzatzeko egiten duen lana indartzea eta sendotzea.

3.4.4.- JUNEREN HEGOAK-Gaixotasunak dituzten haurrei eta haien familiei laguntzeko elkartearen lana indartzea eta sendotzea

3.4.5.- KIROL EGOKITUAREN EUSKAL FEDERAZIOAK desgaitasuna duten pertsonentzako kirol egokitua sustatzeko egiten duen lana indartzea eta sendotzea.

3.4.6.- LARES Euskadi-Adindunen egoitza eta arreta-zerbitzuen euskal elkarte, sektore solidarioa.

3.4.7.- Ascudean-Mendetasuna duten adinekoak zaintzen dituzten familien Arabako elkarte.

3.4.8.a) Hezkide Eskola. Gipuzkoako boluntarioria indartzea

3.4.8.b) EDE Fundazioa. Bizkaiko boluntarioria indartzea.

3.4.9.- Euskal Autonomia Erkidegoko Pentsiodunen eta Erretiratuen Probintzia Elkarte Lurralde Federazioa.

3.4.10.- Gipuzkoako Familia Zaintzailearen aldeko Elkarte Profesionala.

3.4.11.- EDEKA-Elbarrituen ordezkarien euskal koordinakundea.

3.4.12.- EDE Fundazioa (Liburu Zuria): Irabazi asmorik gabeko erakunde iraunkor bat da eta gizarte-arloko hirugarren sektorean jarduten du, berau indartzeko helburuarekin.

3.4.13.- EDE Fundazioa. EDE Fundazioak Euskadin, Hirugarren Sektorearen Behatokiaren bitartez, hirugarren sektorea bultzatzeko egiten duen lana indartzea eta sendotzea.

3.4.14.- HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO SAREEN SAREA ELKARTEA: beren borondatez elkartzen diren irabazi asmorik gabeko Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte-Ekintzaren arloko Hirugarren Sektoreko erakunde-sareen taldea.

3.4.15.- HARRESIAK APURTUZ.

3.4.16.a) EAPN Euskadi-Pobreziaren eta Giza Bazterketaren Aurkako Europar Sarea Euskadin.

- 3.4.16.b) ELKARTEAN-EAEn desgaitasun fisikoa dutenen konfederazio koordinatzailea.
- 3.4.16.c) FEDEAFES-Buru Gaixotasuna duten Pertsona eta Senide Elkarteen Euskadiko Federazioa
- 3.4.16.d) FEVAS-Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko elkarteen euskal federazioa.
- 3.4.16.e) GIZATEA-Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkartea.
- 3.4.16.f) HIREKIN-Euskadiko gizarte-ekimeneko eta esku hartzeko entitateen elkartea.
- 3.4.16.g) ONCE Euskadiren Lurralde Kontseilua.
- 3.4.17.a) GAO LACHO DROM Ijito Elkartea, familia- eta komunitate-politikako proiektua babesteko.
- 3.4.17.b) MESTIMÓS Ijito Elkartea.
- 3.4.17.c) GAO LACHO DROM Ijito Elkartea, familiekin egiten duen esku-hartze integraleko proiektua babesteko
- 3.4.17.d) ROMÍ BIDEAN Ijito Elkartea, ijito-errumaniar komunitatearen proiektu integrala babesteko.
- 3.4.18.a) MINDARA-Dibertsitate funtzionala duten pertsonak artatzeko Gipuzkoako elkarteari diru-laguntza izenduna.
- 3.4.18.b) AGLE-Arabako Gizarte Laneko Elkarteari diru-laguntza izenduna, Loremaitea programako gastuak finantzatzeko.
- 3.4.18.c) AGLE-Arabako Gizarte Laneko Elkarteari diru-laguntza izenduna, gizarte-lanak finantzatzeko.
- 3.4.18.d) Arabako Hiesaren Kontrako Batzordeari diru-laguntza izenduna, presoak gizarteratzeko eta laneratzeko bideak sortzeko eta haiei laguntza integrala emateko.
- 3.4.18.e) Arabako Hiesaren Kontrako Batzordeari diru-laguntza izenduna, prostituzioaren esparruan pertsoneri arreta integrala emateko NAHIKARI programa finantzatzeko.
- 3.4.19.- GEHITU. Dibertsitate afektibo-sexuala ikusaraztea eta LGTBI-fobiaren kontra borrokatzea.
- 3.4.20.- Euskal Herriko Unibertsitatea (Ikuspegi).
- 3.4.21.- EUDEL-Etorrin gehien jasotzen duten udaletako gizarte-zerbitzuetarako telefono bidezko denbora errealeko itzulpen- eta

interpretazio-zerbitzu ez-presentziala garatzeko jardueren ondoriozko gastuak finantzatzea.

3.4.22.- EAeko udalentsako eta mankomunitateentzako laguntzak, immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko eta immigrazioaren eta kulturen arteko elkarbizitzaren arloko jarduerak egiteko.

3.4.23.- CEAR-EUSKADI diru-laguntza, ERABEREAN sarea finantzatzeko.

3.4.24.- Hirugarren sektoreko erakundeei (Gurutze Gorria-Euskadi, CEAR Euskadi, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas, Cite, Cosmópolis, Adiskidetuak eta SOS Arrazakeria Gipuzkoa) eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako abokatuen elkargo prestuei diru-laguntzak, etorkinen gizarteratzea bultzatzeko.

3.4.25.- Hirugarren sektoreko erakundeak (Gurutze Gorria-Euskadi, Goiztiri, Afro eta CEAR-Euskadi). Etorkinei harrera egiteko programa.

3.4.26.- CEAR-Euskadiri diru-laguntza. Etorkin gazteei harrera egiteko HEMEN programa.

3.4.27.- NAGUSILAN Elkartearen Euskal Federazioari, pertsona nagusien aldeko boluntariora-ekintzak egiteko.

3.4.28.- Sumando-GEHITUZ plataforma (Barakaldo).

3.4.29.- REAS Euskadiri, ekonomia alternatiboaren eta solidarioaren esparruan ekintzak egiteko.

3.4.30.- EHLABEri, laneko integrazioaren eta gizartearen esparruan ekintzak egiteko, ezintasunak dituzten pertsonekin.

3.4.31.- Santurtziko RANZARI elkarte (Ranzari Lantegia). Aurrekontu-proiektuari zuzenketa parlamentarioa: 260.000 euro.

3.4.32.- CODISFIBA-Barakaldoko urritu fisikoen kolektiboa: Aurrekontu-proiektuari zuzenketa parlamentarioa: 5.000 euro.

3.4.33.- SAREEN SAREari, bere lokalaren irisgarritasunerako.

Etxebizitza Sailburuordetza

3.5. Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza

3.5.1.- Alokairu babesturako etxebizitzaren sustapenerako diru-laguntza.

3.5.2.- Etxebizitzak alokairu babestura zuzentzeko asmoz erosteko diru-laguntza.

3.5.3.- Zuzkidura-bizitokien sustapenerako diru-laguntza.

- 3.5.4.- Kreditu-erakundeekin alokairua sustatzeko finantza-hitzarmenen babespean formalizatutako maileguen interes-puntuen subsidioak
- 3.5.4.- Etxebizitza Legetik eratorritako Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoak (EPE).
- 3.5.5.- Etxebizitza libre erabiliak erosteko itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak, udalerrri zehatzetan, birgaitze integratuko eremuetan eta eremu hondatuetan baldin badaude.
- 3.5.6.- Sustapen itunduetarako diru-laguntza.
- 3.5.7.- Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, partikularrentzat eta jabekideen erkidegoentzat.
- 3.5.8.- Udalenzako eta udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeentzako irisgarritasuna hobetzeko diru-laguntzak.
- 3.5.9.- Birgaitze integratuko eremuetan ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko diru-laguntzak.
- 3.5.10.- Etxebizitzen eta eraikinen birgaitze eraginkorraren arloko diru-laguntzak.
- 3.5.11.- Hiri-berroneratzerako diru-laguntzak.
- 3.5.12.- Abanto-Zierbenako Udalari diru-laguntza izenduna, Santa Juliana auzoan berroneratze-lanak egiteko.
- 3.5.13.- Sestao Berri 2010 SA sozietateari Sestaoko Txabarri/Eguzkin birgaitze-lan bat egiteko diru-laguntza izenduna.
- 3.5.14.- Ermuko Udalari diru-laguntza izenduna, etxebizitzak birgaitzeko eta funtzionalki egokitzeko.
- 3.5.15.- Visesarentzat diru-laguntza, diru-laguntzen arloko erakunde-laguntzaile gisa, Gasteizko Koroatze auzoko hiri-berroneratze proiektua kudeatzeko eta gauzatzeko.

3.6. Etxebizitza Zuzendaritza

- 3.6.1.- Ondare publikoak osatzeko lurzorua kostu bidez erosteko diru-laguntza.
- 3.6.1.- EHUri diru-laguntza izenduna (Eraikuntzaren Kalitatea Kontrolatzeko Laborategiaren Termika Arloa garatzea).
- 3.6.2.- Tecnalía Research & Innovation fundazioari diru-laguntza izenduna. (Kalitatea Kontrolatzeko Laborategiko Akustika Arloaren kudeaketaren finantzazioa).
- 3.6.3.- Eraikune-Euskadiko Eraikuntzaren Klusterrari diru-laguntza izenduna.
- 3.6.4.- Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialari eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako aparejadore eta arkitekto teknikoen elkargoei diru-laguntza izenduna.
- 3.6.5.- Haizelanentzat diru-laguntza izenduna, jasangarritasun arloko hitzarmenatarako.
- 3.6.6.- HABIC-Euskadiko egurraren klusterrari diru-laguntza izenduna.

3.6.7.- Sektoreko eragileen kalitatea ziurtatzeko sistemen etengabeko hobekuntza. Eraikal programa.

LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA ZUZENDARITZA

2. eranskina: Ardatz Estrategikoak eta Diru-laguntza Ildoak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

1. helburu estrategikoa: Lan-arloko legedia betetzen dela zaintzea eta lan-harremanen esparru propio bat sustatzea, lan-baldintzak eta produktibitatea hobetzeko		
1. diru-laguntza ildoak: Enpresaburuen elkarteentzako eta erakunde sindikalentzako diru-laguntzak, beren jarduera eremuetako berezko gaiei dagokienez, giza-baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak egiteko		
1. organoa: Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza		
1. programa: Enpresaburuen elkarteentzako eta erakunde sindikalentzako diru-laguntzak, beren jarduera eremuetako berezko gaiei dagokienez, giza-baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak egiteko	2015	2016
<p>1. helburua: Enpresaburuen elkarte eta erakunde sindikalen giza baliabideen prestakuntza sustatzea</p> <p>1. ekintza: deskribapena. Enpresaburuen elkarteek eta erakunde sindikalek, beren jarduera eremuetako berezko gaiei dagokienez, giza-baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak egiteko diru-laguntzen deialdia.</p> <p>1. adierazlea: Diruz lagunduko diren erakundeen kopurua</p> <p>2. adierazlea: Prestakuntza jasoko duten pertsonen kopurua</p> <p>3. adierazlea: Prestakuntza-ekintzen kopurua</p> <p>4. adierazlea: Prestakuntza-ekintza motak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aurrez aurrekoak - Ez-presentzialak - Kanpokoak <p>5. adierazlea: Emandako prestakuntza-ordu kopurua (guztira, prestakuntza-ekintza bakoitzeko, bertaratuko den pertsona bakoitzeko...)</p>	<p>500.000</p> <p>210.000</p> <p>Konprometitutako kreditua</p>	<p>497.000</p> <p>213.000</p> <p>Konprometitutako kreditua</p>

2. eranskina: Ardatz Estrategikoak eta Diru-laguntza Ildoak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

1. helburu estrategikoa: Lan-arloko legedia betetzen dela zaintzea eta lan-harremanen esparru propio bat sustatzea, lan-baldintzak eta produktibitatea hobetzeko		
1. diru-laguntza ildoak: Hauteskunde sindikalen batzordea, lurralde-batzordeak eta ikuskaritza osatzen dituzten erakunde sindikalei, 237/2000 Dekretuan jasotakoei, zuzendutako diru-laguntzak		
1. organoa: Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza		
1. programa: Hauteskunde sindikalen batzordea, lurralde-batzordeak eta ikuskaritza osatzen dituzten erakunde sindikalei, 237/2000 Dekretuan jasotakoei, zuzendutako diru-laguntzak	2015	2016
1. helburua: Hauteskunde sindikaletako hauteskunde-prozesua eta aktak aztertzea, baita horien inguruan gertatzen den edozein gorabehera ebaztea ere.		
1. ekintza: Hauteskunde sindikalen batzordea, lurralde-batzordeak eta ikuskaritza osatzen dituzten erakunde sindikalei, 237/2000 Dekretuan jasotakoei, zuzendutako diru-laguntzen deialdia egitea	594.000	220.000
<ul style="list-style-type: none"> 1. adierazlea: Akta-kopurua 2. adierazlea: Gorabehera-kopurua 3. adierazlea: Hauteskunde sindikaletako batzordeak egindako bileren kopurua 4. adierazlea: Lurralde-batzordeek egindako bileren kopurua 5. adierazlea: Hauteskunde-prozesuak izaten diren lantokietan egindako ikuskaritzen kopurua 		

2. eranskina: Ardatz Estrategikoak eta Diru-laguntza Ildoak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

1. helburu estrategikoa: Lan-arloko legedia betetzen dela zaintzea eta lan-harremanen esparru propio bat sustatzea, lan-baldintzak eta produktibitatea hobetzeko		
1. diru-laguntza ildoak: Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza duten erakunde sindikalentzako diru-laguntzak		
1. organoa: Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza		
1. programa: Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak duten erakunde sindikalentzako diru-laguntza	2015	2016
1. helburua: Berezko interes ekonomikoen eta sozialen defentsa eta sustapena bultzatzea.		
1. ekintza: deskribapena. Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak duten erakunde sindikalentzako diru-laguntza deialdia	880.000 220.000	880.000 220.000
1. adierazlea: Diruz lagunduko diren erakundearen kopurua	Konprometitutako kreditua	Konprometitutako kreditua

2. eranskina. Ardatz estrategikoak eta diru-laguntzen lerroak: helburuak, ekintzak eta adierazleak

1. helburu estrategikoa: lanari loturiko legeria betetzen dela zaintzea eta lan-harremanen esparru propioa sustatzea, lan-baldintzak eta produktibitatea hobetzeko.		
Diru-laguntzen 1. lerroa: Euskal Herriko Unibertsitateari diru-laguntza ematea, titulu propioiko ikasketak sor ditzan, ikuskaritza eta aholkularitza soziolaboraleko adituak lortzeko.		
1. organoa: Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza		
1. programa: Euskal Herriko Unibertsitateari diru-laguntza ematea, titulu propioiko ikasketak sor ditzan, ikuskaritza eta aholkularitza soziolaboraleko adituak lortzeko.	2015	2016
1. helburua: lan-harremanen sistema egituratzen duten elementu multzoaren eskumenak garatu behar dituzten profesionalak prestatzea.	14.000	14.000
1. ekintza: deskripzioa. Ikuskatzaile eta aholkulari soziolaboral aditua izateko ikastaroa egitea.	6.000 Kreditu hitzartua	6.000 Kreditu hitzartua
1. adierazlea: prestatutako pertsonen kopurua 2. adierazlea: titulua lortzen duten pertsonen kopurua	20.000	20.000

3. eranskina: Ardatz Estrategikoak eta Diru-laguntza Ildoak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantziazioaren ehunekoa, finantziazio publiko osoari dagokionez

1. helburu estrategikoa: Lan-arloko legedia betetzen dela zaintzea eta lan-harremanen esparru propio bat sustatzea, lan-baldintzak eta produktibitatea hobetzeko

1. diru-laguntza ildoak: Enpresaburuuen elkarteen eta erakunde sindikalentzako diru-laguntzak, beren jardueraren eremuetako berezko gaiei dagokienez, giza-baliabideen trebakuntza hobetzeko **prestakuntza-planak egiteko**

1. organoa: Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza	2015		2016	
	Zenbatekoa (€-tan)	%	Zenbatekoa (€-tan)	%
1. programa:				
4. kapitulua	497.000 213.000 Konprometitutako kreditua	% 100	497.000 213.000 Konprometitutako kreditua	% 100
7. kapitulua				
Guztira	710.000		710.000	

3. eranskina: Ardatz Estrategikoak eta Diru-laguntza Ildoak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantziazioaren ehunekoa, finantziazio publiko osoari dagokionez

1. helburu estrategikoa: Lan-arloko legedia betetzen dela zaintzea eta lan-harremanen esparru propio bat sustatzea, lan-baldintzak eta produktibitatea hobetzeko				
1. diru-laguntza ildoak: Hauteskunde sindikalen batzordea, lurralde-batzordeak eta ikuskaritza osatzen dituzten erakunde sindikalei , 237/2000 Dekretuan jasotakoei, zuzendutako diru-laguntzak				
1. organoa: Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza				
1. programa: Hauteskunde sindikalen batzordea, lurralde-batzordeak eta ikuskaritza osatzen dituzten erakunde sindikalei, 237/2000 Dekretuan jasotakoei, zuzendutako diru-laguntzak			2015	2016
1. programa:	Zenbatekoa (€-tan)	%	Zenbatekoa (€-tan)	%
4. kapitulua	594.000	% 100	520.000	% 100
7. kapitulua				
Guztira	594.000		210.000	

3. eranskina: Ardatz Estrategikoak eta Diru-laguntza Ildoak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantziazioaren ehunekoa, finantziazio publiko osoari dagokionez

1. helburu estrategikoa: Lan-arloko legedia betetzen dela zaintzea eta lan-harremanen esparru propio bat sustatzea, lan-baldintzak eta produktibitatea hobetzeko				
1. diru-laguntza ildoak: Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza duten erakunde sindikalentzako diru-laguntzak				
1. organoa: Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza	2015		2016	
1. programa:	Zenbatekoa (€-tan)	%	Zenbatekoa (€-tan)	%
4. kapitulua	880.000 220.000 Konprometitutako kreditua	% 100	880.000 220.000 Konprometitutako kreditua	% 100
7. kapitulua Guztira	1.100.000		1.100.000	

3. eranskina. Ardatz estrategikoak eta diru-laguntzen lerroak: aurrekontu hitzartuak eta finantzazioaren ehunekoa, finantzazio publiko osoarekiko

1. helburu estrategikoa:				
Diru-laguntzen 2. lerroa: Euskal Herriko Unibertsitateari diru-laguntza ematea, titulu propioko ikasketak sor ditzan, ikuskaritza eta aholkularitza soziolaboraleko adituak lortzeko.				
1. organoa: Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza	2015		2016	
1. programa: Euskal Herriko Unibertsitateari diru-laguntza ematea, titulu propioko ikasketak sor ditzan, ikuskaritza eta aholkularitza soziolaboraleko adituak lortzeko.	Zenbatekoa €	%	Zenbatekoa €	%
4. kapitulua	14.000 6.000 Kreditu hitzartua		14.000 6.000 Kreditu hitzartua	% 100
7. kapitulua	20.000		20.000	
Guztira				

4. eranskina: Ardatz Estrategikoak eta Diru-laguntza Ildoak: Zer sektoreentzat diren eta emateko prozedura

1. helburu estrategikoa: Lan-arloko legedia betetzen dela zaintzea eta lan-harremanen esparru propio bat sustatzea, lan-baldintzak eta produktibitatea hobetzeko	
1. diru-laguntza ildoak: Enpresaburuaren elkarreentzako eta erakunde sindikalentzako diru-laguntzak, beren jardura eremuetako berezko gaiei dagokienez, giza-baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak egiteko	
1. organoa: Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza	
1. programa: Enpresaburuaren elkarreentzako eta erakunde sindikalentzako diru-laguntzak, beren jardura eremuetako berezko gaiei dagokienez, giza-baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak egiteko	
Zer sektoreentzat diren	Sindikatu- eta enpresa-erakundeentzat
Emateko prozedura	<p>Aurkeztutako prestakuntza-planetik behin betiko onartzen den ekintza bakoitzari zuzenean egozgarriak zaizkion gastuen aurrekontu onartuaren % 80 arte diruz lagundu ahal izango da.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Urteko deialdia: Sailburuaren agindua - Diru-laguntza ematea: Zuzendariaren ebazpena -

4. eranskina: Ardatz Estrategikoak eta Diru-laguntza Ildoak: Zer sektoreentzat diren eta emateko prozedura

1. helburu estrategikoa: Lan-arloko legedia betetzen dela zaintzea eta lan-harremanen esparru propio bat sustatzea, lan-baldintzak eta produktibitatea hobetzeko			
1. diru-laguntza ildoak: Hauteskunde sindikalen batzordea , lurralde-batzordeak eta ikuskaritza osatzen dituzten erakunde sindikalei , 237/2000 Dekretuan jasotakoei, zuzendutako diru-laguntzak			
1. organoa: Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza			
	1. programa: Hauteskunde sindikalen batzordea, lurralde-batzordeak eta ikuskaritza osatzen dituzten erakunde sindikalei, 237/2000 Dekretuan jasotakoei, zuzendutako diru-laguntzak	2015	2016
Zer sektoreentzat diren	Hauteskunde sindikalen batzordea, lurralde-batzordeak eta ikuskaritza osatzen dituzten erakunde sindikaleentzat, 237/2000 Dekretuan jasotakoentzat		
Emateko prozedura	237/200 Dekretuaren, azaroaren 28koaren, bigarren xedapen gehigarrian jasotzen denez, diru-laguntzaren zenbatekoa zati berdinetan bana daiteke erakunde sindikalen artean edo lortutako ordezkariaren arabera, diru-laguntzak emateko aginduan xedatutakoaren arabera. <ul style="list-style-type: none"> - Emateko prozedura hastea: Sailburuaren agindua - 4 erakunde sindikalen artean banatzeko erabakia - Diru-laguntza ematea: Sailburuaren agindua - 		

4. eranskina: Ardatz Estrategikoak eta Diru-laguntza Ildoak: Zer sektoreentzat diren eta emateko prozedura

1. helburu estrategikoa: Lan-arloko legedia betetzen dela zaintzea eta lan-harremanen esparru propio bat sustatzea, lan-baldintzak eta produktibitatea hobetzeko	
1. diru-laguntza ildoak: Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza duten erakunde sindikalentzako diru-laguntzak	
1. organoa: Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza	
1. programa: Enpresaburuaren elkarrekin eta erakunde sindikalentzako diru-laguntzak, beren jardueraren eremuetako berezko gaiei dagokienez, giza-baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak egiteko	
Zer sektoreentzat diren	Autonomia Erkidegoan ordezkariak duten erakunde sindikalentzat
Emateko prozedura	<ul style="list-style-type: none"> - Urteko deialdia: Sailburuaren agindua - Diru-laguntza ematea: Zuzendariaren ebazpena

4. eranskina. Ardatz estrategikoak eta diru-laguntzen lerroak: sektore hartzailea(k) eta emateko prozedura

1. helburu estrategikoa: lanari loturiko legeria betetzen dela zaintzea eta lan-harremanen esparru propioa sustatzea, lan-baldintzak eta produktibitatea hobetzeko	
Diru-laguntzen 1. lerroa: Euskal Herriko Unibertsitateari diru-laguntza ematea, titulu propioiko ikasketak sor ditzan, ikuskaritza eta aholkularitza soziolaboraleko adituak lortzeko	
1. organoa: Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza	
1. programa: Euskal Herriko Unibertsitateari diru-laguntza ematea, titulu propioiko ikasketak sor ditzan, ikuskaritza eta aholkularitza soziolaboraleko adituak lortzeko	
Sektore hartzaileak	Euskal Herriko Unibertsitatea
Emateko prozedura	Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan esleitutako diru-laguntza izenduna. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1996 Legegintzako Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik: «halakotzat hartuko dira ondorengo ezaugarriak dituztenak: Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan gehieneko kopurua kontsignatuta izatea, eta onuradunak zehazki mugatuta egotea, modu bakarrean eta baztertzailan».

GIZARTE EKONOMIAREN ZUZENDARITZA

2. eranskina: Ardatz Estrategikoak eta Diru-laguntza Ildoak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

1. helburu estrategikoa		Lan-kooperatibak eta -sozietateak sortzen eta hazten laguntzea eta sustatzea	
Gizarte-ekonomian ekitea			
Diru-laguntza ildoak			
Organoa	GIZARTE EKONOMIAREN ZUZENDARITZA		<i>Adierazleak:</i>
Ekintzak	Gizarte-ekonomiaren arloko enpresak sortzeko laguntzak	Sortutako lan-kooperatiben eta -elkarteen kopurua	
	Gizarte-ekonomiaren arloko enpresen sorrera sustatzea: irabazi asmorik gabeko gizarte-ekonomiako erakundeei helburu horretan laguntzea	Diruz lagundutako babes-erakundeen kopurua eta kalitatea	
	Krisian dauden enpresen bideragarritasun ekonomikoko aukeren azterketa	Berreskuratutako enpresen kopurua eta aztertutako enpresen kopurua.	
	Gizarte-ekonomia sustatzeko eskualdekako lurralde-jarduera	Babestutako jarduera-planak	
Diru-laguntza ildoak Gizarte-ekonomian bazkideak sartzea			
Organoa	GIZARTE EKONOMIAREN ZUZENDARITZA		<i>Adierazleak:</i>
